



MARTIN MARTZIARRAREN IPUINA

TESTUA IRAKURRI AURRETIK

Testuaren aurkezpena: zergatik irakurtzen dugu?
Titulua irakurri ostean: jakin dezakegu zertan datzan?
Zein da zure iritzia behin ikusita titulua?

Orain testua irakurri eta ...



IRAKURTZEN DUZUN BITARTEAN

- Ezagutzen ez ditugun hitzak azpimarratu
- Identifikatzen dituzun urratsak azpimarratu

TESTUA

Marteko Martinek Lurreko baso batean pausatu zuen bere espazial untzia. Hoztuta egoan eta ingurua ezagutu ere ez zuen egiten. Halako batean bera baino nabari ezjakinagoak ziren lurtarrak ikusi zituen. Zilindro gori-gori batzuen inguruan epel ematen zuten. (Martitzen oxigenorik ez dagoenez ez dago hemengo sua). Hurbildu eta hura bai epeltasuna. Zilindroen jabe egin behar zen. Itxoitea baino ez zuen egin behar. Eta halaxe egin ere. Gauean lurtarrak euren kanpin dendetan desagertu zirenean, ixil-ixilik hurbildu eta txilindro batzuk harrapatu zituen. Lehengoak erre egin zion eskuan, baina mutur hotzetik helduta zilindro batzuk karriatu zituen bere espazial untziraino. Laster berotu zen bere jakinduri martizarrak horropuztuta.

Bere poza, baina, gutxi iraun zion, zilindroak gau hotza amaitu baino lehen itzali ziren. Urrutira ikusten zituen lurtarrak suak berpiztuta lo. Zer egingo zuen berak? Martitzeko zientziak ez zion orain laguntza handirik ematen. Saiatu eta esperimentatu egingo zuen,



MARTIN MARTZIARRAREN IPUINA

horixe. Era guztietako gauzak bildu eta banan-bana bota zituen sutara, bere koadernoan ulertu ezinezko notak hartzen zituen bitartean. Hona hemen gure buru traketsak ulertzeko moduan itzulita.

OBJETUAREN IZENA	BEHAKETAK
Zuhaitz adarra	Su bizian erretzen da (sikuan hobeto)
Postea	Su bizian erretzen da
Gomazko mangera	Erre bai baina airea zikinduz. Ezin zaio eutsi
Dinamita-detonagailu	Hau anabasa!. Sekulan ez gehiago
Harri handiak	Ez dira erretzen. Berotu baino ez
Beirazko esferatxoak	Ez dira erretzen. Hautsi egiten dira
Egurrezko makila	Ondo erretzen da

Koadernoaren oharrak aztertuz laster erreparatu zion sua ematen zuten gauza guztien itxura zilindrikoari. Garbi zegoen, beraz, hurrengo hipotesia: **“Zilindro formako orok sua hartzen dute”**.

Hurrengo egunean, poz-pez irten zen Martin gauza zilindrikoak jasotzera. Kainabera zahar bat, beisbol-makila eta adaska ugari ekarri zituen bere kanpamendura. Espero bezala, ekarritako gauza guztiak erre ziren su bizian, eta Martini Lurrera hain ondo egokitu izana barruak lasaindu zitzaion. Harrotu egin zen, gainera, egurrezko ate bat, egunkariz betetako kutxa bat eta ikatz zati handi bat ere bazter utzi izanaz, ez bait ziren zilindrikoak. Ni bai azkarra!

(Azkarra edo ez berak egindako lege orokorra baliozkoa zen bere zerrendaren gauzen artean)

Errekin gehiagoren bila abiatu zen beste egun batean eta burdinezko hirun tutu, beirazko botilak eta kotxe baten ardatza ere bildu zituen. Lehengo atea ere bertan zegoen eta 10x10 cm-ko ohol luzetxo bat ere bai, baina han gelditu ziren denak. Gau hartan Martinen harridurarako, itzali zen sua. Bere hipotesia kale eginda, eta hotzak eraginda, arau berriak bilatzen pasa zuen gaua, eta hurrengo ondorioak finkatu zituen:

1. Gauza zilindriko guztiak ez dute sua hartzen
2. Zuhaitzen adarrak, posteak eta beste gauza zilindriko batzuk bai hartzen dute sua.
3. Egindako zerrenda, beraz, baliagarria zen oraindik



MARTIN MARTZIARRAREN IPUINA

Hurrengo egunean, eguzki galdaran, berriro aztertu zuen bere zerrendako gauza guztien portaera eta, beste hipotesi berri bat proposatu zuen **“Egurrezko gauzak su bizioan erretzen dira”**

Orain bai jokaera aproposa bilatu du Martinek hotza ez pasatzeko.

Ez dezagun pentsa, baina, Martitzeko zientzia eskasa edo atzeratua dela, hangoa baita. Zer egingo genuke guk han?. Martinek, bederen, “Metodo zientikoa” erabili du eta ondo erabili ere.

Bai ikasle hasiberria bai zientzialari trebatuak ere, denek jokatu zuten berdintsu: **behaketa egin, bildutako informazioa ordenatu, informazioa ondo erabiltzeko legeak bilatu. Legeak, sarri, experimentazio berriak egiteko balio duen hipotesi moduan ematen dira. Honela, hipotesiaren egokitasuna finkatzen da jakintzaren sistematizazio bat eginez.**



TESTUA IRAKURRI OSTEAN

- a) Zein da Martineren lehen hipotesia?
- b) Zergaitik heltzen da ondorio horretara?
- c) Zer dela-eta baztertzen du hipotesi hori?
- d) Zein da ondorengo arrazonamendua?
- e) Zein da hipotesi berria?
- f) Zuzena izango da halabeharrez?